

2021. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2020ko irailaren 25ean izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2020/10/06. 192. zk.

MUSIKA ESKOLAN ZERBITZUAK EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA (2021/2022 IKASTURTEA)

1. artikulua: KONTZEPTUA

Udal honek, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 106. artikulua emandako ahalmenak eta Tokiko Ogasunen abenduaren 16ko 2005/9 Foru-Arauko 16. eta 21. artikuluetan oinarrituta, udal musika eskolan zerbitzuak emateagatik ordaindu beharreko tasa ezarri du ordenantza fiskal honek araututa.

2. artikulua: EGITE EZARGARRIA

Tasaren egite ezargarria udalak musika arloan arautu gabeko irakaskuntza zerbitzuak ematea da.

Irakaskuntza zerbitzu eskaintza ikasturte bakoitzerako udal musika eskolak antolatutakoa izango da, musika eskolei dagokien legediaren eta udal musika eskola zerbitzuen araudiaren arabera.

3. artikulua: SUBJEKTU PASIBOA

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Foru Arau Orokorraren 34.artikuluaz azaltzen diren pertsona fisiko eta juridikoak dira subjektu pasiboak zergadun kontzeptuan. Kasu honetan, musika eskolan matrikulatzen diren ikasleak adin txikikoak izan daitezkeenez, euren legezko ordezkariak izango dira subjektu pasiboak.

4. artikulua: KUOTA

1. Tributuzko kuota ikasmaila eta zerbitzu bakoitzerako zenbateko finkoarekin zehaztuta egongo da epigrafeen arabera eta jarritako denboran zatietan izango dira. Ikasturteko zenbatekoak matrikularen epe hasieran indarrean egon daitezen espresuki onartuko ditu Osoko Bilkurak otsailean/martxoan.

2. Epigrafeak

EPIGRAFEAK	2021/2022 kurtsoa (€)
MATRIKULA	
1.1 Matrikula	58,19
HILEKO KUOTAK	
2.1 Harrera mailak: A eta B	29,55
2.2 Harrera maila D	57,92
2.3 Hasiera mailak: Prestakuntza 1,2,3	100,26
2.4 Hasiera mailak: 4 eta 5	100,26
2.5 Finkatze maila	66,13
2.6 Instrumentu bakarra	56,41
2.7 Bigarren instrumentua	42,29
2.8 Taldeak	22,74
2.9 Instrumentu indartua	43,38
ZERBITZU BEREZIAK	
3.1 Instrumentu modulua, ikastaroak	149,92
3.2 Koro modulua	43,29
3.3 Talde modulua	84,64
3.4 Zentroko instrumentuen erabilera, hilerro	11,32
3.5 Musikaren oinarrien modulua	68,21

5. artikulua: HOBARIAK

Aurreko artikuluan zehaztutako kuoten hobari eskubidea edukiko dute ondorengo egoeran daudela kreditatzen duten ikasleek:

1. **Hileroko kuotetan:** Familia bereko ikasle bi baino gehiago direnean zerbitzu hartzaileak, hau da, gurasoak, seme-alabak, aitite- amamak, beti ere haiekin bizi badira, hileroko kuotak proportzio hauetan gutxituko dira, adinez nagusienengatik hasita, beheraka:

- a) Senideko nagusiena den zerbitzu hartzaileak: ez du edukiko hobaririk.
- b) Bigarren nagusienak: %25eko hobaria.
- c) Hirugarren nagusienak: %50eko hobaria.
- d) Laugarren nagusienak: %75eko hobaria.
- e) Bosgarrenak eta hurrengoak: %100eko hobaria.

2. Matrikula kuotan:

- a) Sendi ugaria dela erakusten duen ikasleak matrikularen kuotan %50 hobaria edukiko du.

b) Langabetua dela erakusten duen ikasleak matrikularen kuotan %100 hoberia edukiko du.

Hobari hau aplikatu ahal izateko matrikulatzeko momentuan langabetua dela erakutsi behar du interesdunak Lanbidek emandako langabetua izatearen ziurtagiria aurkeztuta Berh@z bulegoan matrikula inprimakiarekin batera.

3. Iraileko kuotak: Iraileko kuotak 4. artikuluko 2. eta 3. epigrafeetan adierazita dagoenaren %50a izango dira.

4. Zerbitzua emateko arazoengatik hobariak:

4.1- Antolakuntza arazoengatik edo bestelako ezintasunagatik ikasgai batek hilabeterako aurreikusita daukan bete beharreko ordu kopurua baino gutxiago betetzen denean, eman gabeko denboraren arabera zerrendako hoberia aplikatuko da ikasgaiaren kuota zatian eta zenbateko hori deskontatuko da hilabeteiko kuota osotik.

GALDUTAKO KLASA ORDU KOPURUA	HOBARIA
%0 - %25	%0
%26 - %50	%25
%51 - %79	%50
%80 - %100	%100

4.2- Ikasgaiaren *kuota zatia* kontzeptuak/zenbatekoak atal honetako hobarietarako baino ez du balioko.

6. artikulua: MATRIKULA

1- 4. artikuluko 2. ataleko epigrafeei dagozkien zerbitzuak eta 3.4 epigrafekoa *IV-E 42* matrikula eskaera- orriarekin eskatuko dira ikasturte bakoitzean, inprimakian dauden beharrezko datu guztiak beteta, hobarien kasuan ezinbesteko agiriak erantsita eta matrikularen kuota helbideratuta ordaindu gura izanez gero banku-kontua jarrita.

2- Matrikula eskaria onartzeko aurreko ikasturteetako zorrak ordainduta izan beharko ditu, beraz matrikula eskaera- orriarekin batera ikasle/tutore eskatzaileak musika eskolako zerbitzuengatik ordaintzeko epea igarota daukan zorrik ez daukanaren Diruzaintzako ziurtagiria aurkeztu beharko du.

3- Matrikulatzeko epea apirilaren 1etik ekainaren 30era bitartean izango da.

4- Nahiz eta musika eskolako administrazioak inprimakia betetzen lagundu, matrikulatzeko epe barruan matrikula eskaera-orria eta beharrezko eranskinak Musika Eskola bulegoan aurkeztu beharko dira eskariak balioa edukitzeko.

5- Matrikula eskaera-orria Musika Eskola bulegoan aurkezten den egunetik hasita, 10 eguneko epean, atzez egin daiteke espresuki idatziz eskatuta. Kasu honetan matrikula kuota ez da kitatuko edo ordainduta edukiz gero itzuli egingo da.

6- Matrikula eskaera-orrian matrikula kuota ordaintzeko egindako aukeraren arabera, honela kitatuko da matrikula kuota:

- a) Ordainketa banku-kontuan ez helbideratzea aukeratu dutenek matrikula eskaera-orria Musika Eskola bulegoan aurkezten duten egunean autolikidazioa egingo zaie eta 10 eguneko epean ordaindu beharko dute. Epe horretan ez ordaintzeak matrikula eskaria behin-behingo balio barik utziko du.
- b) Ordainketa banku-kontuan helbideratzea aukeratu dutenekin errolda osatuko da eta banketxeetara bidaliko dira erreziboak, kasu honetan beste edozein kasutako helbideratuen kudeaketa-hitzarmenaren arabera kobratuko dira. Banketxeak erreziboa ordaindu barik itzultzeak behin-behingo matrikula eskaria balio barik utziko du.
- c) Aurreko ataletan aipatutako ordainketa ezagatik behin-behingo balio barik geratutako matrikula eskariak eskuz ordaintzeko bigarren aukera emango da, eta horretarako azken eguna irailaren 30 izango da. Ordaindutakoak behin-betiko matrikulak izango dira. Ez ordaindutakoen matrikula eskariak ezabatu egingo dira.

7- Zuzendaritzak ziurtatuko du talde eskatzailearen ikasle kopurua edo bestelakoak kontuan izanda zerbitzua ematea posible den ala ez. Zerbitzurik ezin denean eman matrikula kuota itzuliko da.

8. Matrikulatzeko jarrita dagoen epetik kanpo egin daitezke zerbitzu eskariak, aurretiaz, Zuzendaritzak balizkoa dela ziurtatuta interesatuari. Kasu honetan ez da egongo kuota ordaintzeko helbideratze aukerarik, beraz autolikidazioz ordaindu beharko.

9- Behin baja eskatu eta gero alta eskatzea alta berri lege hartuko da eta 8. atalean xedatutakoa izango da aplikagarria.

7. artikulua. SORTUTAKO TARIFAK ZATI BATEAN EDO GUZTIZ EZEZTATZEA

1. Matrikulatuei tarifak zati batean edo guztiz ezeztatu ahalko zaizkie, egoera hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Ikaslea hiltzen bada.
- b) Ikasturtea hasi ondoren, ikaslearen familia unitatea beste herri batera bizitzera joaten bada.

c) Matrikula egin eta gero gertatutako ezinbesteko arrazoiren batengatik. Horrelakoetan, nahitaezkoa izango da musika eskolako Zuzendaritzaren aldeko txostena eta onartua izango da.

2. Ezeztatu egingo da musika eskolara hilean egun bat bera ere joan ez den hileko eta hurrengoetako zati alikuota, baldin eta joan ez izanaren arrazoia tarifaren zati bat edo guztia ezeztatzea ahalbidetzen duen arrazoiren batengatik bada. Musika eskolako ikasturtea hasi baino lehenago gertatu badira 7.1 atalean aipatutako arrazoiak, matrikula eta espediente irekierarengatik ordaindutakoak itzuliko dira. Bestela, ez da matrikula eta espedientea irekitzeagatik ordaindutakoak itzultzerik izango.

3. Tarifak zati batean edo guztiz ezeztatzeko eskubidea musika eskolaren Zuzendaritzak onartuko du, ofizioz edo interesdunak eskatuta.

8. artikulua: HILEROKO ERROLDAK

1- Behin-betikoak diren matrikulen datuen arabera musika eskolako errolda osatuko da, ikasle bakoitza, kasua balitz tutorea, dagozkion tasa epigrafeak eta hobariak erregistratuta. Musika eskolako Zuzendaritzak ziurtatu beharko du zerbitzu hartzaileak errolda horretan daudenak bakarrik direla.

2- Ikasturtean hileroko errezibozko kitapenak 10 izango dira, irailetik ekainera arte, biak barne. Hauek hileroko errolda fiskala osatuko dute.

3- Matrikula eskaera-orrian hileroko kuotak ordaintzeko egindako aukeraren arabera, errolda kaleratuta honela kobratuko dira errezibozko kitapenak:

- a) Erroldaren onarpena eta ordainketa epea onartutako urteko aldizkako tributuen egutegian jarritakoa izango da.
- b) Ordainketa banku-kontuan helbideratzea aukeratu dutenei *Udal kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskapenariburuzko zerga ordenantzaren* arabera kobratuko zaie.
- c) Aurreko ataletan aipatutako epean ez ordaintzeak derrigorrezko bilketa prozedura aplikatzea ekarriko du.

4- Behin matrikula behin-betikoa izanda, abenduaren 31 arte eskatu daitezke baja, beti ere baja eskaria erregistro orokorrean aurkeztuta. Horrela egindako eskarien ondorioz baja emango zaie zerbitzu erroldan eta eskari dataren hurrengo hilabetetik aurrera ez dute ordaindu beharko hileroko kuotarik.

5- Urtarrilaren 1etik aurrera aurkeztutako bajak, ez dute ordainketetan eraginik edukiko, hau da, baja eskatu arren eta musika eskolara ez joan arren, ekainera arteko hileroko kuotak ordaindu beharko dira.

6- 6. artikuluko 8. atalean aurreikusitako matrikulen kasuan zerbitzu erroldan eta errolda fiskalean alta emango zaie matrikulatzen diren hilabeteen bertan.

9. artikulua: BESTELAKO ZERBITZUAK

1- 4. artikuluko 2.3 ataleko bestelako zerbitzuak musika eskolako zuzendariak antolatzen duen arabera eta eperako emango dira.

2- Zerbitzu eskaria Musika Eskola bulegoan aurkeztu beharko da eta aurkezten den egunean autolikidazioa egingo da. 10 eguneko epean ordaindu beharko da. Epe horretan ez ordaintzeak eskaria balio barik uztea ekarriko du, beraz zerbitzua emateko/hartzeko debekua.